

noaua

Atzegi: "Boluntario gehiago behar ditugu"

**Garraio publikoak:
urriaren 20ra arte luzatu
da erreklamazio epea**



**Urriaren 22an,
Mundualdia jaialdia**

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

* NOAUA! * Udaletxea
* Kiroldegia * Saizar
* Eroski City * Aginagako
Arrate taberna * Zubietako
Alamandegi taberna

Edo deskarga ezazu
www.noaua.eus-etik!

noaua

tren eta autobus

noaua

ordutegia 17/18



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



Lukainkategi Erretegia



Geure plateren zapore paregabeak, Añorgan jateko aukera hoberenen artean kokatzen gaitu.

Usurbiletik oso gertu, Txikierdiko aldapatik gora kotxez 3 minutu!

Asteaz zehar eguneko menu zabala dastatu dezakezue eta asteburuan karta bikainaz gozatzeko aukera duzue.

Aingeru Zaindaria bidea 85, 20018 Añorga Tel. 943 37 14 44

Albiste irudituan

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen lan berria Zumeta Arte Estudioan aurkeztu zuten

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek disko liburu berri bat plazaratu dute. 'Antzinako zuhaitza' du izena eta aurreko astean aurkeztu zuten Zumeta Arte Estudioan. Askoren artean osatutako lana izan da, beste behin ere.

Joan Mari Irigoien idazlearen poemak eta hitzak abiapuntu harturik, Jose Luis Zumeta margolariarengana jo zuten ilustrazio eske. Liburuaren edizioan, Usoa Zumeta arduratu zen koordinazio-lanaz.

Xabier Zabalak egin ditu diskoko kantuak eta, ohi bezala, Kaki Arkarazo arduratu da grabazioaz.

Usurbildar kutsua duen lana izanik, aurkezpen ekitaldia Usurbilen egin zuten, disko liburuako ilustrazioak egin zituen toki berean: Zumeta Arte Estudioan.



CD-liburuako ilustrazioak Jose Luis Zumetak egin ditu. Liburuaren edizioan, Usoa Zumeta arduratu da koordinazio-lanaz. Poemen eta kantuaren grabazioak Kaki Arkarazok egin ditu.

Laburrean

Bertsolari Txapelketa Nagusiko sarrerak salgai

Internet bidez, bertsosarrerak.eus atarian. Ohiko salmenta puntuetan: Usurbildik gertuen, Hernaniko Kitto Tabernan, Donostiako Hontza liburudendan, Zarauzko Txiki Polit tabernan.

1946an jaiotako bazkaria, urriaren 22an

Urriaren 22an, Antxeta jatetxean. Otor-durako izena eman nahi duenak, urriaren 19ra arteko epea du. Laurok liburu dendan apuntatu daiteke edo 943 36 34 48 telefono zenbakira deituta.

1967koen bazkaria, azaroaren 11n

2017an 50 urte betetzen ari diren herritarrentzako gonbita. "Laster elkartu egingo gara oroitz ospatzeko. Azaroaren 11: 1967ko kintoen ospakizuna. Eman izena Kaffan, urriaren 29a baino lehen".

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noau.eu // www.noau.eu

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noau.eu

Diseinu berria: Erroitz S. L

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noau.eu:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Aritz Gorriti

Etena

Urriak 10, 11:36. Kataluniako herriaren mandatuari erantzunez, abian duten prozesuaren baitan beste urrats garrantzitsu bat nola ematen duten ikusi eta entzuteko zain, irrikaz zalantza izpirik gabe.

Idatzi hau ziur guztiz zaharkitua geratuko dela lerrook irakurtzen ari zarenerako. Baina badira zenbait elementu Kataluniako prozesu osoan zehar presente egon eta ziurrenik, are modu bortitzagoan presenteago egongo direnak datozten egun eta asteotan.

Etxe azpi berean gogoz

kontra bizi den bikote kidearen adibidea berreskuratu nahi nuke lerrootan. Batek etxea utzi nahi du, toxikotzat jotzen duen harremana eten eta bizi proiektu berri bati ekin. Baina ondokoak "gerra" deklaratu dio. Etxeko atea itxi dio, eta ate hori zeharkatzen badu, gogor mehatxatu; ez du nora joanik edukiko, bizitzeko lain ere ez du izango, aterperik ez du aurkituko, bakarrik geratuko da...

Argumentuok oso ezagunak zaizkio etxetik joan nahi duenari. Elkarbizitza arauen izenean, etxeko jaun eta jabe dela, bere menpeko izan behar duela eta arauok inori sarrerako atea zentimetro bat

irekitzea ez diola baimentzen gogorarazten dio.

Hobebeharrez konbentzitzen saiatu da etxetik joan nahi duenak, biak zoriontsuago izango direla bakoitza bere bidetik. Nork jakin, horri esker etorkizunean errespetuzko harreman bat ere eraiki ahalko duten.

Ezetzta, ezetzaren gainetik baino ez du jasotzen ordea, eta urte askoko saiakeren ostean, bere esanetara bizitzera derrigortu duen etxekidearen aldetik beste ezer ez du espero eta ondo baino hobeto ezagutzen duenez, aski dela esatea erabaki du. Eta atea irekitzen ari da orain, zentimetro bat, bi, hiru.... Kale-

ko argi izpiak eta aire freskoa etxeko itxi usain eta iluntasunari gailentzen ari zaizkio. Adi ordea, atzean baitu bere onetik irtendako etxekide izan duena. Piztia esnarazi du eta gainera datorkio. Zertarako gai izango ote da? Ez daki ziur zer aurkituko duen atez bestalde, ezagutzeko irrikitan da, badakielako gutxienik bere buruaren jabe izateak zoriontasuna ekarriko diola. Etxe atarian esku zabalik hartuko duten lagun mordoa du zain. Ez du zalantzarik; erabakia du aspaldi.

Gertatzen dena gertatzen dela, atzera begiratu gabe, etxetik badoa.

Aritz Gorriti Luis Aranalde Imanol Ubeda Garazi Lizaso Manterola Maialen Unanue Idoia Torregarai Luken Arkarazo

Hildako bat, trenak harrapatuta



Urriaren 5ean, eguerdi partean, 81 urteko emakumezko bat hil zen trenak harrapatuta.

Urriaren 5ean, 81 urteko emakumezko bat hil zen Bizkarre azpiko tunelean, trenak harrapatuta. Berehala bertaratu ziren larrialdi zerbitzuak. Ezbe-

harraren ondorioz tren zerbitzua eten egin zuten. Ordezko autobus zerbitzuak jarri zituzten, baina berehala berrezarri zen zerbitzua.

Zorionak, laurogeigarrenez



Urriaren 1ean ospatu zuten urtemuga borobila Atxega jauregian, senide eta lagunekin batera.

Merezitako omenaldia jaso dute aurten ere 80 urte bete dituzten usurbildarrek. Ondoko iruditan duzue zoriondu beharreko herritar koadri-

la, urriaren 1ean, senide eta lagunekin batera Atxega jauregian egin zuten urtemuga bazkarian.

Argazkia: Josu Aranberri.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 20. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 16.

Atzegi: “Boluntario gehiago behar ditugu”

Atzegiren aurtengo kanpaina boluntarioei zuzenduta dago. Atzegi Xperience lema bitartez, boluntarioek bizipen ahaztezinak izaten dituztela eman nahi dute aditzera. Bide batez, arlo horretan aritzen diren lagunen ahalegina goraiatu nahi dute. “Musu truk, hainbat esparrutan laguntzen duten pertsona asko dago”, Buruntzaldeko ordezkariak aditzera eman dutenez.

“Esperientzia paregabea”

Boladan daude bidaia-kutxak. Opari gisa, arrakasta handia dute. Atzegi Xperience lema, hortaz, opari-kutxa horiekin alderatu daiteke. Adimen urritasuna duten lagunekin aritzen diren boluntarioentzat, esperientzia ahaztezina dela adierazi nahi dute horrela.

Zeregin horretan, laguntzeko modu asko dago. “Puntualki kolaboratuz, aldizka, zaletasunen bat partekatuz, ekimenetan parte hartuz, oporretara joanez... Kolore guztietako esperientziak daude eta, zarena zarena, badago zuretzat egokia izan daitekeen esperientzia”, Atzegiko kideek prentsaurreko bidez adierazi zuten.

Gizarteratzean lagundu

Atzegik, batetik, boluntario berriak batu nahi ditu. Eta bestetik, jada horretan ari direnei eskerrak eman nahi dizkie: “Adimen urritasuna duten per-



Aurreko ostegunean, Buruntzaldeko taldeek prentsaurrekoa eskaini zuten Lasarte-Orian.

ATZEGI BURUNTZALDEA

“Laguntzeko modu asko dago. “Puntualki kolaboratuz, aldizka, zaletasunen bat partekatuz, ekimenetan parte hartuz, oporretara joanez...”

tsonen bizitzan boluntarioek duten garrantzia azpimarratu nahi dugu. Hauei esker, adimen desgaitasuna duten pertsonak beren aisialdiaz gehiago gozatu, gizartean aktiboki parte hartu edo lagun hurkoari zabalteko aukera dute. Horrek

guztiak hobetzen du, azken batean, euren gizarteratzea”.

Atzegi Xperience

Boluntario gisa aritu nahi duenak, aukera ezberdinak ditu eskura. Atzegi Xperience goiburua bitartez, hain zuzen, lau eskaintza ezberdin proposatu dituzte: Bizipoza, Irteerak, Ongizatea eta Bide-lagun.

Boluntario egiteko zer egin?

Pauso hori eman nahi duenak, edo boluntario bezala beste esperientzia batzuk bizi nahi dituenak, Atzegirekin jar daiteke harremanetan: 943 42 39 42.

1967koen bazkaria

2017an 50 urte betetzen ari diren herritarrentzako gonbita: “Ingurumari hauetara agertzen hasi ziren eta argia egin zen. Berehala konturatu ginen bereziak zirela eta gertzeko etorriak zirela, esku artean zekartela etorkizuna, bidea erakutsiko zigutela.

Ilbeltzaren lehen egun hartan hasi zen dena eta 365 egunez jarraitu zuen etenik gabe. Laster elkartu egingo gara oroitzu ospatzeko. Azaroaren 11n: 1967ko kintoen ospakizuna. Eman izena Kaffan, urriaren 29a baino lehen”.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Atzegi
Partekatuz
Jatetxea

- bazkariak EGUNERO
- afariak. asteazkenetik larunbatara

© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Nafartarren ekintza astea, azken txanpan

Urriak 14, larunbata

■ 11:00 Eñaut Etxamendirekin solasaldia.

■ Sutegiko auditorioan.

■ “Eñaut Etxamendi, nafarra, gizon handia, Usurbilen izango dugu. Kantaria (Etxamendi eta Larralde), hizkuntzalaria (euskararen jatorriari buruzko tesia eginga du), artzaina... ekintzaila. Hamaika eskarmentu jasotako pertsona, eta abertzalea. Zeresan handia duen gizon honekin solasaldia izango dugu. Gai hauek guztiak jorratuko ditugu eta beste hainbat ere bai. Hau guztia borobiltzeko, berarekin Ainhoa Larrañaga (Mondragon Unibertsitateko irakaslea) izango dugu”.

■ Sarrera: doan.



Eñaut Etxamendiren solasaldia, larunbat honetan Sutegin.

Estreinakoz, Buruntzaldeko Euskararen Ginkana

Euskararekin, hizkuntza aniztasunarekin eta hizkuntza-ekologiarekin lotutako hainbat probekin jolasteko aukera eskaintzen duen Euskal Herri mailako ginkana ospatu izan da orain arte. Aurtengoan, alde zurretik, udazken honetan, eskualde mailakoa, Buruntzaldekoa antolatu dute, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udaletako Gazteleku eta euskara zerbitzuek Kutxa Ekogunearekin elkarlanean, 12-16 urte arteko gazteen-tzat.

Lau laguneko taldeak osatu beharko dira.

Izen-emate epea, amaitzear

Izen emateko epea: urriaren 19ra arte, euskararenginkana. eus atarian. Informazio gehiago helbide berean.

Faseak

■ 1. fasea (urriak 23-azaroak 19): Internet bidezko frogak. Talde bakoitzak aurkezpen bideoa landu beharko du, eta proba bana egin lau astez web-gunean.

■ 2. fasea: finala, abenduaren lehen Orona-Ideon, lehen fasean puntu gehien lortu dituz-



Usurbilgo Gazteleku kideak, kanpainaren kartela eskuetan.

ten lau taldeen artean. Bi sari jokoan: 1.000 euro txapeldu-nentzat, 500 euro bigarren talde sailkatuentzat.

Igandean, Atxorrotz gaztelura irteera

Urriak 15, igandea

■ 09:00 Atxorrotz gaztelura irteera, Usurbilgo Udaleko autobus geltokitik.

■ Zehaztasunak: “Behar adina jende izanez gero, autobusa antolatuko litzateke. Bazkaria norberak eramanda. Animatu, familiarekin, lagunekin,... edo bakarrik. Atxorrotz mendi tontorrek (Eskoriatza) gaztelu baten aztarnak gordetzen ditu, arrano kabi bat balitz bezala. Lekuaren garaierak irudi ikaragarriak eskaintzen dizkigu. Gaztelu nafarrak bertatik zaintzen du Gipuzkoara sartzeko bidea. Handik sartu ziren gaztelarrak”.

■ Izen ematea: 650 19 59 41 (Jexux).

■ Antolatzailea: Nafartarrak.

II. Barraskilo Operazioa, urriaren 26an

Maiatzean egin zuten moduan, erraustegiaren aurkako eta alternatiben aldeko mezua errepideetan barrena zabalduko duen 2. Barraskilo Operazioa, autokarabana iragarri du Errausketaren Aurkako Mugimenduak urriaren 26rako. Egunotan emango dituzte xehetasun gehiagoren berri.



Errausketaren Aurkako Mugimenduak autokarabana egingo du.

“Goazen Kalera”, martxan berriz ere

Batzuk Aginagan ospatzekoa zuten San Praixku Egun handirantz abiatu ziren oinez. Besteek, herrian barrena egin zuten osteratxoa. Denek ere giro ederrean. Abiapuntu ezin hobea izan zuen beraz urriaren 4an, udako etenaldiaren ostean, Usurbilgo Udalak berriz martxan jarri zuen eta ekainera arte luzatuko den “Goazen Kalera” ekimenak.

Herriko nagusien eta dibertsitate funtzionala duten herritarren osasuna zaintzea da asmo nagusia, adinekoek edo osasun arazoak dituztenak sasoian mantentzea. Horretarako, aurreko ikasurtean bezala, asteazkenero



Urriaren 4tik berriro martxan da “Goazen Kalera” ekimena.

“GOAZEN KALERA”

“Eguraldi txarra suertatzen denean, kirol ariketa ezberdinak egingo dituzte Artzabal barruan”

ibilaldiak egiteko aukera izango dute herri inguruan. Lau ibilbide ezberdin zehaztuak ditu antolakuntzak. “Astero bat egingo dute. Horrez gain, asteazkenero ibilbideak egingo dituzten heinean, zigilu batekin partehartzaileen txar-

tel propioak markatuko dira”, Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez. Eguraldi txarra suertatzen denean, kirol ariketa ezberdinak egingo dituzte Artzabal barruan.

Artzabaldik abiatzen dira

Astero elkartuko dira. Asteazkenero goizeko 11:00etan Artzabalera gerturatu behar da. Ibilaldia edo kirol ariketak egin ostean, mokadutxo bat jateko aukera izango dute egitasmo honetako partaideek.

Aipatzekoa, eragile ezberdinen laguntzaz gauzatzen dela “Goazen Kalera” ekimena. Tartean, adineko herritarrek beraiek ere parte hartzen dute bolondres gisa antolaketan lanetan.

‘AdiUsurbil’, herria ezagutzeko app berria

Usurbilek ere app edo aplikazio propioa du. Usurbilgo Udalak Elhuyar Fundazioarekin elkarlanean sortutako ‘AdiUsurbil’. Udalerria ezagutzera ematea du helburu nagusi, “bere ondare kulturalari, zein turistikoari erreparatuz, besteak beste”.

Aplikazio berri honek “Harriak Hitz” ibilbidea norbere kabuz egiteko aukera ere eskainiko du. “Ibilbidean bisitatzen diren puntuetan QR kodeak ezarri ditu udalak, eta ‘AdiUsurbil’ aplikazioaren bitartez kode horiek irakurri eta ibilbidearen ezaugarri eta informazio guztia jasoko da puntuz puntu. Modu horretan, noizean behin egingo diren bisita gidatuz gain, nahi duen edonork aplikazioa dohain jaitsi eta bere kabuz egin ahalko du ibilbidea”, ohartarazi du Udalak.

Bisita gidatuak

Halere, gidari baten falta su-



QR kodeak ezarri dira eskulturen ondoan. ‘AdiUsurbil’ aplikazioaren bitartez, kode horiek irakurri eta informazio guztia jaso daiteke mugikorrean.

matzen baduzue adi. “Harriak Hitz” bisita gidatuen edizio berria antolatu baitu Usurbilgo Udalak asteburu

honetarako, urriaren 14 (euskaraz) eta 15ean (gaztelaraz), goizeko 11:00etan Dema plaza-

Talde kide kopuru mugatu batentzako egongo da lekua bisita gidatuotan.

Honenbestez, aurrez izena eman beharra dago bideotatik: 688 818 017 edo info@kultour.pro.

Altxor ezkutuen erakusgarri

“Usurbil euskal tradizioa eta modernitatea ederki uztartu dituen herria da, baita euskal sorkuntzarekin konprometitutakoa. Inon baino hobeto islatzen da 60. hamarkadan Euskal Herrian gertatu zen kultur eztanda eta bere ondorena. Altxor ezkutu horiek ezagutarazteko, Harriak Hitz ibilbidea antolatu zen duela hilabete batzuk, eta bertan Dema Plaza, Udarregi bertsolaria, Zumeta, Mikel Laboa edota Tapia eta Artze anaiak barnebiltzen dira. Orain, berriz, beste aurrerapauso bat da”.

Dagozkien eskubideak zaintzeko eskaera

Urriaren 2an udaletxe aurreko plazan egin zuten agerraldian, arduratuta agertu ziren herriko jubilatua: “Kezkaz ikusten dugu, nola gure politikoez-guk uste ez genuen bezala-gure asmoak eta eskubideak ez dituztela zaintzen, ezta ere babes-ten, agian esan daiteke, gutaz ahaztu egin direla”.

Euren eskubideen defentsan

Jubilatuok beste hainbat herrietako adinekoekin batera biltzen dituen Gipuzkoako Jubilatua eta Pentsiodunen Elkarteak kide ditugu. Elkarte honetako kide gisa egin zuten agerraldia urriaren 1eko Pertsona Nagusien Nazioarte-



Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunaren harira, agerraldia egin zuten udaletxe aurrean.

ko Egunaren biharamunean. Arratsaldeko 19:00etan, ordu berean Gipuzkoako beste hainbat udalen atarrietan egitekoak ziren moduan.

Haien kezka eta ezinegona

adierazi nahi zieten politikariei, besteak beste, pentsioetan aplikatu dituzten murrizketengatik edota “gubernuak gure Gizarte Segurantzako fondoak bere irabazietarako

erabili dituela” eta. Bizitzako azken garaian, biziki estimatzen dituzten eskubideez gozatzeko nahia agertu zuten. Azpian duzue agerraldian irakurri zuten adierazpena.

“Elkarrekin eta elkarturik gehiago ahal dugu”

GIJUPENSEko bazkideak gara eta guztira 37.000 bazkideek osatzen dugu, elkarre bezala gorantza goaz eta Elkarte bezala nortasun bizi eta eraginkor batekin lana egin nahi dugu gaurko gure gizartean eta era berean biziki estimatzen ditugun eskubideak gure bizitzako azken garaialdian gozatu nahi ditugu.

Kezkaz ikusten dugu, nola gure politikoez-guk uste ez genuen bezala-gure asmoak eta eskubideak ez dituztela zaintzen, ezta ere babesten, agian esan daiteke, gutaz ahaztu egin direla eta horren frogaz bezala, begiratu:

1- Gure pentsioen erosahalmena gutxitu da eta gutxitzen doa, eta gaurko eta lehengo Gobernuak bultzatu dute %0,25eko urteko bakarria ia hustuta dago.

2- Pentsio ahul eta txikiak

hartzaileak izanez, sarri askotan gure familietako egoera larrien babesle nagusiak gara, bai era zuzenean hala zehargabeen.

3- Salatzen dugu nola gobernua gure Gizarte-Segurantzako fondoak bere irabazietarako erabili dituela eta bere itzultze-bihurtzea azkar egin dezala eskatzen baitugu.

4- Gaurko alargunen pentsioen zuzengabekeri eza salatzen dugu, eta eskatzen dugu azkar batean %70era igotzea hainbat alditan agindu digutena.

5- Era berean, salatzen dugu IRTP delakoa, Norberaren Lanaren etekinari jarritako zerga, nolaz gure langile bizitzan Kotizazio Legearen babesean egindako mozkina eta murriztapena dela-eta, gaurko gure pentsioei ezin zaiela hori ezarri, lehen ordaindua baitugu, eta orain

bir-ordaintzea ez baita zuzena, horregatik horren behar halako itzultzea eskatzen dugu eta zerga horren balio-gabetzea.

6- Era berean, pertsona ahul eta menpekoekin solidarioak eta elkarkoak izan behar dugu, laguntza gehiena behar dutenak baitira eta beharrezko laguntza soziala ez baitute Erakunde Publikoetatik, eta era berean, etxer-etxeko laguntzaren premia zabaldu behar baita.

7- Baita ere, Lehiatila Bakarria eskatzen dugu adinekoren beharrei erantzuteko, era erosoan eta eraginkorrean zerbitzua emateko, kontuan izanez “adintsuekiko begirunea”, bai bere behar eta laguntzetan udal mailan, Foru Aldundiko departamentu arloan edo beste edozein erakunde ofizialetan.

Era berean, gure ongi-izateko gizarte honen sortzaile

eta babesleak izan baitira adin-nagusiko pertsona hauek, eta beren nortasuna eta ekarpena ezin baititugu ahazturik izan. Hauek izan dira arrazoiak eta zergatiak AGIJUPENS elkarteari mugiarazi egin dizkietenak gure Udaletxetan biltzeko eta kontzentratzeko. Horregatik, urriaren 2an eta arratsaldeko 19:00etan Gipuzkoako udaletxe guztien aurrean elkartu eta bertaratu gara.

Nahiko genuke bai elkarre honetako bazkideak eta partaideak, eta baita jubilatua orokor guztiak parte hartzea. Elkarrekin eta elkarturik gehiago ahal dugu, gure ezinegona bai politikariei eta baita herri-agintariei hain guztia agertzeko.

2017ko urriaren 2an, Gipuzkoako Jubilatua eta Pentsiodunen Elkarteak.

Sexu Aholkularitza Gunea, herrira zabaltzen

Jorrotua duen 6 urteotako ibilbidea erretratatu nahi dute, era ludiko batean. Ikasturte berri honetan landu asmo duten zabaldu kanpaina berri baten abiapuntua izango da, Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak urriaren 27rako Sutegin antolatu duen antzerki emanaldi eta solasaldia.

Orain artekoa bildu, herri-tarrekin partekatu eta udal zerbitzu hau ezagutzera ematen jarraitu nahi dute. Hilaren 27ko saioa baliatuko dute horretarako. Duela urte batzuk Emakumeen Eguneako Artzabalgo afarian, Sexu Aholkularitza Gunera joan eta bere kezka partekatzen zituen esketx bat antzetzuz parte hartu zuen Itziar Saenz de Ojer aktorea, Bazen Behin Clown konpainiako kidea gonbidatu dute hitzordura. Iaz 2016ko Poltsiko Antzerki Sorkuntzako bigarren saria jaso zuen "Sexijentziak Askatzuz" bakarriketa dako oraingoan urriko azken ostiralean Sutegira. Eta antzezlanaren ostean, solasaldia arin eta parte hartzailea iragarri dute antolatzaileek.

Ezagutarazten segitzeko nahia
Ekitaldian parte hartzea aurreikusten dute, urteotan lanketaren bat burutu duten zenbait eragileetako ordezkari nahiz herritarrek. Esperientziak partekatuko dira, Sexu Aholkularitza Gunea zer den eta zerbitzuak herrian egin



"Sexijentziak Askatzuz" bakarriketa antolatu dute urriaren 27rako.

UDAL ZERBITZUA

**"Urtero zuzenean
150 bat lagunek
baliatzen dute
Sexu Aholkularitza
Gunea"**

dako ekarpen eta onurak ezagutzeko aukera izango da.

"Denengana heltzea ez da erraza"

Udal zerbitzu honek jada bere tarte egin baitu Usurbilen. Zenbaki batzuk horren adibide gisa. Urtero zuzenean 150 bat lagunek baliatzen dute Sexu Aholkularitza Gunea. Horri besteak beste, guraso edota hezitzaileekin bideratzen duten lanketa, eta haiek era berean ikasle nahiz seme-alabekin egiten duten transmisio lana gaineratu behar zaio. Sare sozialetan ere presente dago gunea eta hortik 300-500 bat

lagunengana heltzeko modua dute. Halere, udal zerbitzu honetako sexologo eta arduradun Elena Jimenezek NOAUA!ri aipatu dionez, "guneak badu leku bat herrian, baina egia da ere hainbat herritarrek ez duela ezagutzen. Denengana heltzea ez da erraza. Horregatik eman nahi dugu pauso hau".

Ekimen gehiago begibistan

Aipatu moduan, ekintza hau ikasturte osora zabandu nahi duten lanketaren abiapuntua izango da. Helburu argi batekin; orain arte heldu ez direnengana heltzea. Datozen hilabeteotan, Sexu Aholkularitza Guneak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzera eman eta egon daitezkeen beharren berri jasotzeko, orain arte harremanik ez zuten herritar edo taldeekin bilkura erronda bat egitekoak dira, erakusketa batekin borobildu asmo dutena. Honekin batera, Sexu Aholkularitza Gunearen zerbitzuen

informazioa eskaintzen duten txartelak berritu, eta orain arte bidelagun izan dituzten eragileen egoitzetan, jende mugimendua daudenetan jarri dituzte herritarren eskura-garri.

Antzezlan eta solasaldia

- Eguna: urriak 27, ostirala.
- Ordua: 18:30.
- Sutegiko auditorioa.
- Zehaztasunak: Sexu Aholkularitza bulegoaren ibilbidearen inguruko solasaldia eta "Sexijentziak Askatzuz" antzerkia.
- Aktorea: Itziar Saenz de Ojer.
- Zuzendaria: Peio Arnaez.
- Sarrera: doan. Baina aurrez gonbidapenak eskuratu Oiardo Kiroldegian, Sutegi udal liburutegian, Artzabalen, Txirristan, eta Aitzagan.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila eta Sexu Aholkularitza Gunea.

Informazio gehiago:

- Kale Nagusia, 43 behea (Gizarte Zerbitzuen egoitza).
- Orduetgia: hilabete bakoitzeko lehen, hirugarren eta bosgarren asteartean, 17:00-19:00 artean (aurretik doan hitzordua hartuta).
- 697 919 516
- sexuaholku@usurbil.eus



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



ZAHARREN EGOITZA

Amonaren
lapikoa dastatu
nahi baduzu...

Gure
Elkartea
~ Santuenea ~

Eguneko platera 6€ - Eramateko aukera! Deitu: 686 55 41 45

Mundualdia urriaren 22an, plazatik irten gabe

Sorteri guztietako herritarrek bildu, eta guztion arteko ezagutza eta hartuemanak sendotzea helburu duen Usurbil Herri Anitza jaialdiaren lekukoa hartuko du aurten, Udala herritar talde batekin urriaren 22rako antolatzen ari den Mundualdia Usurbilen jaialdiak.

Izena egokitu dute aurten, jaialdiaren izaera egokiago biltzen duelakoan. “Mundua, jaialdia. Denontzako, denok, herri osoak elkarrekin ospatzeko. Guztiok jaialdi horretan murgiltzeko”, Josune Estella zinegotziak aitatu digunez.

Jatorri ezberdinei buruz ari garenean, urrunetik gure artera etorritako herritarrez oroitzeko joera izan dezakegun arren, “jatorri orok” du lekua Mundualdian. Aurten go ediziora begira esaterako, “Europatik nahiz estatutik etorritako herritarrekin ere jarri gara hartuemanetan. Haien jatorria, ohiturak erakustea da helburua”, Estellaren esanetan. Jaialdiak horri guztiari leku bat, plaza bat, biltzeko gune bat eskaintzen dio, eta udal ordezkariak gaineratzen duenez, “horren aitzakiarekin herritarrak elkarrekin harremanetan jartzea” da bultzatu nahi dena.

Zubi lanetarako, gastronomia

Usurbil Herri Anitza jaialdiko ekitaldiak mantenduko ditu Mundualdiak ere. Baina aurten hitzordu gehiago txertatu eta ziklo modukoa osatu dute hilaren 16tik azaroaren 2ra. Tartean, aurreko edizioetan arrakastatsua suertatu ohi den munduko jakien dastaketa. Herritarrak haien sorterriko elikagaiak prestatu eta zerbitzatuko dituzte Mundualdian. Udalaren esanetan ekimen arrakastatsua



Argazkian, antolatzaileak eta jaia iragartzeko antolaturiko diseinu lehiaketaren irabazlea, Haira Rivero Arrieta (ezkerretik hasita, hirugarrena). Datorren astean argitaratuko dugu Hairari eginiko elkarrizketa.

JOSUNE ESTELLA

“Europatik nahiz estatutik etorritako herritarrekin ere jarri gara hartuemanetan. Haien jatorria, ohiturak erakustea da helburua”

da, herritarren arteko harremanei begira dakartzan onurengatik. “Jende asko animatzen da probatzera eta entzuten diezu jakiak zer onak dauden eta hitz egiten aritu direla esaten. Hori onuragarria da. Hurrengo egunean kalean gurutzatzen direnean gutxienik ezagunak izango dira jada”, nabarmendu digu Josunek.

Nahiz batzuetan gero kalean elkar ikustea zaila den. Jatorri ezberdinak dituzten herritarrei buruz ari garenean, errealitate oso ezberdinei buruz ari baizara. Hartara, zinegotziak gogorarazi digunez, “batzuk beren umeak eskoletan dituzte eta errazagoa da haiengana hurbiltzea”. Baina beste hainbat herritar lanean dabilta aste osoan zehar eta gutxitan ikusi-

ko ditugu ziurrenik herrian.

Errealitate ezezagunak bistaratu nahian

Eta hortxe dago Usurbilgo Udalak duen erronka nagusietakoa. Nola heldu herritarrongana. “Kanpotik zatoz, sorterrian utzi duzunaren zama dakarkizu. Hona etorri, ez duzu ezer ezagutzen eta bat batean sartuko zara hemengo kulturari? Askok esaten digute beraiek lan egin nahi dutela. Dirua irabazi nahi dute beren sorterrira bidaltzeko eta kito”, berri eman digu Josunek.

Kolektibo honen baitan bada Udala bereziki kezkatzen duen herritar sektore bat; etxeko langileena. Interna moduan daude bat baino gehiago. “Batzuk igande arratsaldetik larunbat arratsaldera arte aritzen dira lanean. Oso zaila egiten zaigu haien errealitatea ezagutzeko. Iristeko erarik ez dugu”, adierazi digu udal ordezkariak.

Emakumeak dira ia kasu guztietan edo denetan. Garai batean estatu espainiarreko hainbat herrietatik etorritakoak. Egun ordea, Hego Ameriketatik, Afrikatik edo

Asiatik datoz. “Harremanetan gaude, galdetzen ari gara ia zer egin. Zerbait egin nahi dugu. Aitzakia bat jarri, beraien beharretan oinarritutako ekimen bat abiatu. Agian ondo daude baina ez dakigu eta beti hor dago kezka”, adierazi digu Josunek.

Herritarrak ezagutzeko aukera aparta

Jatorri guztietako herritarrak erakarri nahi dituzte bai Mundualdian, baita dinamika honi urtean zehar jarraikortasuna ematera ere. Saiakerak egiten ari dira, nahiz gaurkoz herri bilgune iraunkorrik ez duten osatzerik izan. Ahalegin horretan segi asmo dute halere. Urtero parte hartu ohi duten herritar talde bat bai baita Mundualdian. “Balorazio positiboa egiten dute. Gustura egiten dira. Indar eta ilusio handia jartzen dute guztia prestatzen”. Horregatik guztiok animatzen gaituzte urriaren 22an plazara. “Animatu eta etorri ez bakarrik jakiak dastatzera, egun hori gainerako herritarrekin partekatzea. Usurbilen bizita, jendearengana nola iritsi? Mundualdia horretarako aukera ederra duzue”.

“Denok bildu eta bakoitzak bere herrialdeaz ahal duena erakusteko egun bat izatea nahi genuke”

Jaialdian parte hartuko duten herritarren artean ditugu Fatimetu Hamadi eta Nadia Daudi sahararrak. Nadia estreinakoz dator Mundualdira. “Gustuko dut sahararren alde zerbait egitea eta neure sorterriagatik zerbait egitera ateratzea. Gustuko dut baita giro honetan, herrialde gehiago daudela, zerbait egitea jaialdi honetan”, adierazi dio NOAA!ri.

Fatimetuk bai, ezaguna du ekimen hau. Usurbil Herri Anitza izenburupean ospatu diren aurreko edizioetan parte hartu izan du, bere sorterriko jakiak dastatzeko aukera eskaini izan digu. “Gustuko dut, Usurbilgo herritar guztiak batzen baititu. Denok bildu eta bakoitzak ahal duena egin edo bere herrialdeaz ahal duena erakusteko egun bat izatea gustuko dut. Usurbilgo Udala eskertzen dut jaialdi hau antolatzeagatik”, adierazi digu Fatimetuk.

Herritarron arteko elkar eza- gutza sustatzen laguntzen duela azpimarratzen du eta hilaren 22an plazara joateko gonbita luzatzen digu. “Animatu jen-



Fatimetu Hamadi eta Nadia Daudi sahararrak Mundualdia jaialdiaren antolaketa hartu dute parte.

FATIMETU HAMADI

“Jaialdi honetako giroa gustuko dut: plazara atera, jende gehiago ezagutu eta sorterria erakustera eman”

dea parte hartzera. Gustuko dut, halako egun batean plaza-

ra atera, jende gehiago ezagutu eta sorterria erakustera ematea. Jaialdi honetako giroa gustuko dut”, azpimarratu digu Fatimetuk.

Dastatzeko jaki ugari

Gastronomia ezin lagungarriagoa zaigu munduko herrien arteko zubiak eraikitzeko. “Gastronomiak asko laguntzen du. Jendea ezagutu, kul-

turak ezagutu eta herrialde bakoitzak jakiak ezagutzeak asko laguntzen du”, azpimarratzen du. Sahararren jakiak, eta Mundualdiko jakien dastaketan parte hartuko duten herritarren sorterrietako elikagaiak dastatzeko aukera izango dugu urriaren 22an. Eta bide batez, baita herritarron arteko ezagutza eta hartuemanak sendotzekoa ere.

Mundualdia, ekitaldi zikloa

Urriak 16-25

- “Emakumeak Afganistan” Suteigiko erakusketa gelan.
- Egileak: Gervasio Sanchez, Mónica Bernabé. Euskal Fonda.
- Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 17:30-19:30. Larunbatean: 11:30-13:00.

Urriak 20, ostirala

- 18:00 Garabidek aurkez-

tutako “Arnasa Txikitxuak” dokumental proiektzioa eta solasaldia dokumentalean aztertzen diren nasa eta kixua hizkuntza komunitate-tako ordezkariekin Potxoenean.

- 18:00 Maite Franko ipuin kontalariarekin “Munduko ipuinak” Potxoeneko sotoko gelan, 5 urtetik gorakoen-tzat.

Urriak 22, igandea Mundualdia Jaia

Goizez frontoian:

- 11:30 Alkatearen agurra. Aurkezpena herriko dantzariekin.
- 12:00 Cultural group taldearen eskutik munduko dantzak.
- Ondoren, Asociacion Internacional Union 5 Estrellas taldearen dantzak.

- 13:00 Jatorri ezberdinetako herritarrek prestatutako jakien dastaketa.

Azaroak 2, osteguna

- 18:00 Hitzaldia Potxoenean: “Islamofobia gure gizartean”.
- Hizlaria: Tarana Karim, SOS Arrazakeria. Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta hainbat herritar.





Argazki gehiago topatuko dituzue noaua.eus web orriko Argazkitegian.

Kataluniaren eta demokraziaren alde



Urriaren 3an, hainbat udal langile, ordezkarri eta herritarrek elkarretaratzea egin zuten udaletxe aurrean.



Mikel Laboa plazan elkarretaratze ugari egin dira azken egunotan.

Katalunian, asteotan bitzitzen ari diren errepre-sio giroa salatu eta katalanei elkartasuna adierazteko eguna izan zen, haiek greba eguna deitu zuten urriaren 3a. Eguerdi parterako euskal gehiengo sindikalak eginiko deialdiari erantzunez lan uzteak egin ziren hainbat lantegietan, baita Usurbilgo Udalean ere. Langileek ez ezik, hainbat herritarrek ere bat egin zuten.

Atarian bildu ziren hainbat udal langile eta ordezkarri, bertaratu ziren zenbait herritarrekin batera. Bestalde, AsCATasunera bilguneak Euskal Herri osoan eginiko deialdiekin bat egin zuen Gure Esku Dago Usurbil-ek. Arratsalde partean, “Demokrazia” aldarripean elkarretaratze jendetsua egin zen Mikel Laboa plazan estelada artean. Eta gaueko 22:00etan, kazerola-da burrunbatsua.

Herria itzaletan, lapiko zarata kalean

Usurbilgo Udalak ere kazeroladarekin bat egin baitzuen, kaleko argiak hamar minutuz itzalita. Herria argirik gabe, kalean ia inor ez eta herritar mordoia agertu zen balkoi nahiz leihoetara eskura zituzten soinua eragiteko denetariko objektuekin. Tarteka, independentzia oihuak ere entzun zitezkeen.

Elkartasun olatua, etengabekoa

Etengabekoa da Usurbilgo herria Kataluniari erakusten ari zaion elkartasun eta babesa. Irailaren 30etik urriaren 3rako tartean, sei aldiz mobilizatu ziren Kataluniaren eta demokraziaren alde. Eta kalean begi bistakoak dira kataluniarren, erabakitze eskubidearen eta demokraziaren aldeko aldarri eta esteladak.

Ke isurketen harira, Usurbilgo Udala Eusko Jaurlaritzarekin batuko da datorren astelehenean

Bilera horretan, udalak zein herritarrek dituzten kezkek mahai gainean jarri eta “Ingurumen sailaren interbentzio zuzena eskatuko dute udal ordezkariek”, udaletxetik aditzera eman dutenez.

Datorren astelehenean, urriak 16, Usurbilgo Udalak bilera izango du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen saileko arduradunekin, herrian dauden ke-isurketen inguruan hitz egiteko. “Bileran, herritarren eta udalaren eskaerak helaraziko dizkiogu Eusko Jaurlaritzari, herrian dauden ke-isur-

keten aurkako neurriak hartu ditzan”, prentsa-ohar bidez NOAAU!ri jakinarazi diotenez.

Eusko Jaurlaritzaren esku hartzea eskatuko dute

“Gure eskuetan genuen guztia egin dugu Usurbilen ke-isurketak kontrolatzeko, baina egiaztatu dugu Udalak ez dela gai horrekiko eskumen handirik. Hori dela eta, benetan egoera geldiarazteko eskumena daukan erakundearengana jo dugu askotan, arazoari irtenbide bat eman nahian. Oraingoan bilera bat izango dugu Gasteizen, eta bertan Udalak zein herritarrek dituz-

ten kezkek mahaigaineratuko ditugu. Arazo honek Eusko Jaurlaritzaren interbentzio zuzena eskatzen du, eta hain justu hori nabarmenduko diegu”, adierazi du Xabier Arregi alkateak.

Udalaren eskaeren ondorioz, ustez ke isurketak eragiten dituen enpresak labe berria jarri behar izan zuen 2014an, “eta tarte honetan udalaren asmoa izan da labe zaharra behin betiko ixtea eta ke-erazgailu berria jartzea. Negoziaketa luzeen ondoren aurrerapausorik ez zegoela ikusita, Udalak elkarriketaketan egin zituen uda aurretik.



Udaberrian, zigor espedientea ireki zion Udalak Ucin lantegiari.

Udalak behin eta berriz ohar-tarazi dio Eusko Jaurlaritzari egoeraren larritasunaz, beren interbentzioa eskatuz eta udalaren inplikazioa eta laguntza eskainiz”. Bien bitartean, Ucin enpresari hirigintza arloko zigor-espedientea ireki zion ekainean.

Pausoka Elkartearen alde lasterka

Behar bereziak dituzten seme-alaben beharrak asetu eta haien bizi kalitatea hobetzea helburu du, seme-alabon gurasoak biltzen dituen Pausoka Elkartek. Aste berezia ospatzen dabilta, Pausokaren aldeko itzulia egiten ari baitira Gipuzkoan barrena. Astelehenean Usurbildik igaro zen lasterketa solidarioa.

Urriaren 7an abiatu zen Hernanitik. Larunbatean (urriak 14) amaituko da, Urnietan ospatuko den Pausoka Egunean. Tartean, 235 kilometroko bidea osatuko dute Kepa Gordo korrikalariaren laguntzarekin. Astelehenean, Lasarte-Oria eta Zumaia arteko 3. etapa osatu zuten. Tartean noski, Zubieta, Usurbil eta Aginaga zeharkatu zituen.

Kale Nagusian bidelagun izan zituzten Udarregi Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasle eta hezitzaileak. Haur Hezkuntzakoak ere begira zizuten udaletxe aurreko plazan. Giro ederrean joan zen lasterketa. Txalo artean harrera egin eta agurtu zituzten Oriorantz jarraitu zuten lasterkariak. Informazio gehiago: pausokaelkartea.org



Urriaren 7an abiatu zen lasterketa Hernanitik. Astelehenean, Zubieta, Usurbil eta Aginaga zeharkatu zituen. Larunbat honetan amaituko da Urnietan.

Pausoka Eguna

Urriak 14, larunbata, Urnieta

■ Lekua: Erratzu industrialdea, Iparlat-eko aparkalekua. Eguraldi txarrarekin Egape ikastolan.

■ 11:00 Pausokaren aldeko Gipuzkoako Itzuliaren amaiera. Aurreksua, Jone Izagirrekin

eta Egape Dantza Taldearekin.

■ 11:30 Tailerrak: kirol ego-kitua, aurpegien marrazketa, eskulanak, Dja, graffitiak, idazkera txinatarrak...

■ 14:00 Tailerren itxiera eta paellada.

■ 16:30 Ikuskizunak: "El coro de los colores", "Oliver Nestar

Eureka Dance taldearekin", "Go!azen".

■ 18:30 Porrotxen emanaldia. Pausoka Egunaren amaiera, heliozko puxikak askatuz.

■ Oharra: egun osoan, globo aerostatikoa eta sarbide askeko jumping-a izango dituzte.

■ Antolatzailea: Pausoka.

Ikastetxeetako ikasleek bat egin zuten Pausokarekin



Behar bereziak dituzten seme-alaben beharrak asetu eta haien bizi kalitatea hobetzea helburu du Pausoka Elkartek.



Kale Nagusian bidelagun izan zituzten Udarregi Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasle eta hezitzaileak.

Ttipika, dantzara

Musika eta dantza, dantza eta musika, biak plazaratzen dituzte Ttipika Dantza Gidatuen taldekoek. Bata bestearen ezinbesteko osagarri bihurtarazi dute. Udaberrian abiatu zuen egitasmo honek poztasun handia ekarri dio jada, bai Usurbilgo zein beste hainbat txokoetako herritarrak dantza batean jarri dituen laukoteari. Igandean Lesakako Nafarroa Oinezan aurkituko dituzue. Aurretik NOAUA!rekin bildu dira.

NOAUA! Dantza Egunean ikusi zintuztegun lehen aldiz. Estreinalakoa izan zen emanaldi hura?

Manex Torrealdai: Lehenago izan genuen beste proba bat. Tapia eta Leturia Patxi Perezekin aritu ziren proiektua interesgarria iruditzen zitzaigun. Aitor Agirre dantzariarekin hitz egiten aritu ginen eta hala hasi ginen. Data bat jarri nahi genuen, hartara bai edo bai hasiko ginelako. Dantza Egunerako jarri genuen hitzordua. **Aitor Agirre:** Usurbilgo Dantza Taldean ere proiektu hori sortzeko asmotan ginen. Aurrera joan zen proiektu hau. Dantza Eguneko emanaldiaren aurretik proba moduko saio bat eskaini genuen Tolosan jende gutxirekin.

Nola sentitu zineten Dantza Eguneko estreinaldian? Ezohiakoa zen irudia, erromeri giroa arratsaldez plazan.

A.A.: Harrera ona izan zuen. Jendeak nola hartuko zuen ikusi nahi genuen. Aurrez taldea ez genuen jendaurrean aurkeztu. Beste leku batzuetatik deika hasi ziren gero. Formatuarekin asmatzen ari garela ikusi dugu.

Musikan oinarritzen duzue dantza, edota dantzan musika? Nola uztartzen dituzue bi



Ttipikako lau artistak: Aitor Agirre (dantza emanaldiko gidaria), Josu Furundarena (gitarra), Manex Torrealdai (trikitixa eta kaxa flamenkoa) eta Maitane Arteaga (abeslaria eta pandero jolea).

AITOR AGIRRE

“Gure kantak sortzen ari gara dantza egiteko, baina baita musika munduaz gozatzeko ere”

elementuok?

A.A.: Trikitixa dugu oinarri eta horren inguruan jendeak dantza eginaraztea. Gure helburua dantza errazak erakutsi, jendeak ondo pasa eta dantzatzeko aukera izatea da. Gure

kantak sortzen ari gara dantza egiteko, baina baita musika munduaz gozatzeko ere.

M.T.: Abesti modernoagoak hartzen ditugu edo gure kantak, eta gero agian dantza asmatu egiten dugu, gehienbat pauso tradizionaletan oinarrituta. Batzuk berezko dantzak dira, beste batzuk asmatutakoak. Helburua, edonork egiteko moduko dantza errazak izatea da.

Zergatik Ttipika?

M.T.: Ttipika ttipikak pixkanaka

pixkanaka adierazi nahiko luke. Dantzak ere pixkanaka ikasten direla. Gainera, asko gustatzen zitzaigun ahoskatzerakoan nola geratzen zen. Taldearen filosofia islatzen zuen.

Usurbilgo emanaldiaz geroztik nondik nora ibili zarete?

A.A.: Oiartzunen, Hondarribian, Barakaldoko Errekatxo auzoan... Oso harrera ona egin ziguten. Abuztua amaieran La Seu d'Urgellen (Katalunian) izan ginen, oso gustura.

“Sekulako harrera ona egin ziguten Katalunian. Han dantza gehiago egiten dute”

NOAUA! Ze giro sumatu zenuen egun historikoak bizi dituzten Katalunia aldean?

Maitane Arteaga: Sekulako harrera ona egin ziguten. Han dantza gehiago egiten zuten. Gu bezala nahiko folklorikoak dira. Jende asko hurbildu zen gugana. Guk ere izugarri gozatu genuen haiekin, haien musika entzun eta ikasten. Guganako harrera handia dute. Trago

batzuk hartzera irten ginen eta ikaragarria zen. Gu jotzen ari ginenean, denak gu inguratuta begira eta txaloka. Beste era batera gozatzten dute.

M.T.: Akordeoi diatonikoa jotzen zuen gazte batekin izan ginen. Konparazioan kanta katalan bat nekien nik eta berak kanta euskaldun asko. Beraiek bazekiten fandango, arin-arinak dan-

tzatzen eta dena. Eta hemen sardanak ez ditugu dantzatzen.

M.T.: Lehen abestitik hasi ziren dantzan, bukatu arte. Beste bat eskatu zuten. Bukatu genuenean gugana argazkiak atera eta autografoak eskatzera etorri ziren, ia diskorik bagenuen galdezka. Han hartu dugun aprezioa kontuan izanda, gure kontzertu hoberena izan da dudarik gabe.

“Hasieran kosta egiten da jendea dantzan jartzea. Baina gero erraz animatzen dira”

NOAUA! Hemen oraindik badi-rudi kosta egiten zaigula hasieran dantzara animatzea. Erraz animatu da jendea zuen emanaldietan?

Josu Furundarena: Lotsa puntu bat badago. Halakoak ere tokatu zaizkigu, plazan hasieran agian kosta jendea dantzan hastea. Baina gero jendea erraz animatzen da.

A.A.: Lehenengo beldur eszeniko hori beti egoten da, ia zein egongo zait begira plazara ateratzen banaiz, gaizki egingo ote dudana... Azkenean guk nahi duguna da dantza errazak erakutsi, lotsa hori galtzeko.

M. A.: Lehenengo lauak irteten direnean gero segituan irteten dira besteak.

Dantza gidatuz ari gara. Zein da zure papera Aitor?

A.A.: Nire funtzioa, dantza egin nahi duen orori zer egin behar duen azaltzea da, oinarriko orientazioa eskaintzea, erraza, abiapuntu bat denak bateratsu aritzeko eta hortik aurrera bakoitzak dakiena egitea. Ez da derrigorrez perfektioz dantzatu behar.

Lan erraza al da dantza eta musika koordinatzea?

M.T.: Tolosan proba moduko emanaldi bat eskaini genuen, jendea dantzan hastean kankak nola geratzen ziren ikusteko. Hasieran arazotxo batzuk izan genituen. Gerora kankak moldatzen joan gara. Eta azkenean lortu dugu modu bat bai musikariok eta dantzaria elkar ulertzeko.

J.F.: Hor Aitor eta Manexen artean egon da konexioa. Aitor gidatzen ari denean, Manexek soinuarekin segitzen du. Gu beraiei begira.

Begiradekin funtzionatuko duzue hein handi batean?



Uda honetan Katalunian izan dira. “Jende asko hurbildu zen guregana”.

MAITANE ARTEAGA

“Lehenengo laurak irteten direnean gero segituan irteten dira besteak”

A.A.: Bai, keinuekin.

J.F.: Oihu batzuk ere egiten ditugu batzuetan. Dantzaren batean konplikatu ere egin zaigu egoera. Geratu eta zain egon behar, ildo berriz hartzeko.

A.A.: Dantza bat hasi eta bukatzen da, baina jendearen arbera luzatu daitekeenean gure arteko konexioak funtzionatu beharra du.

Maketa Lehiaketa batera zenbait abesti aurkeztu zenituen. Bi abesti hautatu zituzten disko baterako. Zertan da lan hau?

M.T.: Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak, 25 urtez azpiko trikitilarietarako maketa lehiaketa antolatu zuen. Jende berriari zuzendua zegoen. 27 abesti aurkeztu ziren eta horietatik guk 4 aurkeztu genituen, eta 4 horietatik bi hautatu dituzte lehen hamarretan. Hamar horietatik bi aterako da eta ziuurtenik, Durangoko Azokan, Trikititxa Elkarteak postuan egongo da erosi nahi duenarentzat.

J.F.: Lehenengo bertsioa entzun dugu eta itxura polita du.

Zer berezitasun dituzte bi abestiok?

M.T.: Bat euskararen ingurukoa da, zailtasunen inguruko kanta; “Ezinaren ekinaz”. Ezina ekinez egina, hortik datorren nahasketa bat. Zailtasunen aurreko ekiteari buruzkoa.

Erromeria giroa gainbehera zihoala zirudien. Berpizte bat ematen ari da orain?

A.A.: Gurea formatu desberdina da. Gauekoa baino arratsaldeko formatua da gurea. Beste publiko bati zuzendua, nahiz denetik egoten den.

J.F.: Gure dantza gidatu giroa ez dago hainbeste. Gaueko erromeria asko dago. Baina zailagoa da ikustea betiko abestiek arratsaldeko plazan dantza giroa ikustea. Errespetu bat ematen dio jendeari plazara atera eta dantzan jartzeari.

M.T.: Gure publiko handiena ez da gaztea, dantza egitea gehiago kostatzen zaie. Umeak edo helduak izaten ditugu emanaldietan. Katalunian kontrakoa ikusi genuen, denetarik zegoen, denak dantzarako gogotsu.

Igandean, Nafarroa Oinezen

Adi dantza zaleok. Usurbilgo Ttipika Dantza Gidatuak taldeko kideak Lesakan “Bikin bat in” aldarrinean ospatuko den Nafarroa Oinez jaialdian aurkituko dituzue igande honetan, urriaren 15ean. Ibilbideko lehen gunean, arratsaldeko 17:00etan hasita. “Erronka handia eta polita izango da guretzat, hainbeste jenderen

aurrean emanaldia eskainiko dugun lehen aldia izango baita”, adierazi diote NOAUA!ri. Nafarroaoinenez.eus atarian duzue jaialdiko egitaraua eta gainerako xehetasunen berri.

Ttipikakoak berriz Facebook-en aurki ditzakezue; “Ttipika Dantza Gidatuak” izeneko orrialdean. Bide honetatik kontakta dezakezue

taldearekin. Emanaldi gehiago eskaintzeko gogotsu dira.

Ttipika kideak

Aitor Agirre: dantza emanaldiko gidaria.

Maitane Arteaga: abeslaria eta pandero jolea.

Manex Torrealdai: trikititxa eta kaxa flamenkoa.

Josu Furundarena: gitarra.

Aldundiak garraio publikoetan aplikatu asmo dituen murrizketei alegazioak aurkezteko deia

Gipuzkoako Foru Aldundiak herrialdeko garraio publikoen zerbitzuetan hainbat egokitzapen iragarri zituen, irailaren 7an ezagutzera eman zuen aurreproiektuan. Egokitzapenak eta murrizketak ere bai, Andoain, Hernani eta Usurbilgo Udalek salatu dutenez. Murrizketok bertan behera utzi eta gaiari konponbide adostu bat ematea eskatu zuten Donostiako Gipuzkoa plazan, Diputazio aurrean urriaren 4an.

Aldundiak aurreproiektu hau herritarren eta udalen bizkar, ezer adostu gabe landu duela kritikatu zuten. “Errespetu instituzional falta” egotzi zion Ana Karrera Andoaingo alkateak Aldundiari. Aurreproiektu honen baitan, hainbat zerbitzuren maiztasuna murriztu eta zenbait zerbitzu bertan behera uzteko asmoa du Aldundiak. Horren berri astebete lehenago modu ez ofizialek jaso zutela salatu zuten. “Erabili den metodologiak ez digu aukera eman ez udaloi, ezta herritarrei ere, prozesu honetan parte hartzeko aukera”, zioen Xabier Arregi Usurbilgo



Aldundiak aurreproiektu hau herritarren eta udalen bizkar, ezer adostu gabe landu duela kritikatu zuten Andoain, Hernani eta Usurbilgo udal ordezkariak. Argazkia: blogdecarlos.

XABIER ARREGI

“Erabili den metodologiak ez digu aukera eman ez udaloi, ezta herritarrei ere, prozesu honetan parte hartzeko”

alkateak.

Ospitalerako zerbitzu batzuk, bertan behera

Are gehiago, jakinik herrita-

rrei nabarmen eragingo ditela Aldundiak iragarritako murrizketok. Besteak beste, “ospitalerako autobus zerbitzu batzuk bertan behera geratzen dira eta horrek bete betean eragiten die gizarte-ko sektore ahulenei”, zioen Arregik. Sentsibilitate handiko gaia, erabiltzaile gehienak gazteak eta emakumeak direla kontuan izanda.

Konponbide adostu baten alde

Horregatik, aurreproiektu honi

alegazioa aurkeztu diote hiru udalok. Eskaera bikoitza luzatzen diote Gipuzkoako Foru Aldundiari: “aurreproiektu hori bertan behera uzteko eta inplikatura gauden udalerrietako ordezkariekin mahai baten inguruan esertzea konponbide adostu bat bilatu ahal izateko”.

Urriaren 20ra arte luzatu da erreklamazio epea

Herritarrak ere hitza hartzera animatzen dituzte, alegazioak aurkeztera alegia. Hasiera batean, urriaren 9ra arteko epea zegoen baina aipatu denbora tarte hau amaitzeko egun gutxi falta zirela, urriaren 23ra arte luzatzea erabaki zuen Aldundiak. Epea luzatzeak ordea Aldundiak aurreproiektu hau alboratuko duenik ez duela adierazi nahi ohartarazi dute Usurbilgo Udaletik, eta horregatik, alegazio epea luzatzea ez, eskatzen dutena murrizketok bertan behera utzi eta auzi hau adostasunez konpontzea dela. Usurbilgo Udalak eta Zubietako Herri Batzarrak alegazioak aurkeztera deitzen dituzte herritarrak. Bideok dituzte:

Alegazioak aurkezteko epeak zabalik jarraitzen du

Usurbil

- Alegazio orriak non eskuratu: usurbil.eus udal atarian, udaletxean.
- Alegazio aurkezpena: udal erregistroan.

Zubietako

- Alegazio orriak eskuratzeko aukera: Barazarren eta Almandegin.
- Alegazio aurkezpena: Zu-

bietako Herri Batzarraren postontzian.

- Epea: urriak 20.

Murrizketak bi autobus zerbitzutan

N-1 errepidea baliatzen duten edota Donostia zein Buruntzaldeko autobus zerbitzuetan eragingo dute Aldundiaren murrizketok. Usurbil inguru-

ri dagokionez, ospitalera doan zerbitzua eten egingo du Aldundiak, kendu alegia. Bertan dira gogoan izan, Usurbil, Aginaga eta Txokoaldeko geltokiak.

Usurbil Hernanirekin lotzen duten zerbitzuari dagokionez, Zubietako eta Santueneko geltokiak desagertuko dira. Hau da, ez Zubietako ez Santuenetik ere ez da igaroko autobus zerbitzu hau.



Alegazio orriak usurbil.eus udal atarian eskuratu daitezke edota udaletxean bertan.

Haimar Zubeldiaren omenaldi bazkarirako txartelak salgai

20 urtez maila profesionalen lehiatu ostean, udan erretiroa hartu zuen txirrindulari usurbildarrari omenaldia egingo zaio azaroaren 18an. Ondoko irudian ikus dezakezuen moduan, antolakuntzak prestaketa lanei ekin die jada.

Bazkaria, Aginagan

Bestelako ekitaldien artean, omenaldi bazkaria antolatu diote 14:00etan Aginaga Sagardotegian. Hara joateko doako autobus zerbitzua jarri asmo du antolakuntzak. Otordurako txartelak salgai izango dituzue Bordatxon azaroaren 5era arte.



Azaroaren 18an egingo diote omenaldia. Hasi dira prestaketa-lanetan.

Bi menu izango dira aukeran:

■ Helduentzat menua: 30 euro, sagardotegiko menua.

■ Haurrentzat menua: makarroiak, oilaskoa eta izozkia. 15 euro.

Mendizaleak Anboton

Urriaren 8an Anbotora igo ziren mendizale usurbildarrak, Andatza M.K.T.-k antolaturiko txangoan. Ondoko irudian dituzue hainbat lagun, ez guztiak, mendi irteeran parte hartu zuten 16 lagunetatik taldetxo batek ibilbide laburragoa osatu baitzuen, Andatzakoek aditza eman digutenez. Honatx mendizaleen hurrengo hitzorduen agenda:

■ Azaroak 12: Elgeako zerra.

■ Azaroak 23, 24, 25:

Mendi Astea.

■ Abenduak 17:

Hendaia-Ibardin.



Aurreko igandean Anboton izan ziren. Elgeako zerra bisitatuko dute azaroaren 12an.

Aginagako jaietako

Toka Txapelketa

San Praixku egunez ospatu zuten toka txapelketa hiru sarituekin amaitu zuten:

1-Joseba Rezola.

2-Jon Galarraga.

3-Karmele Bengoetxea.

Eskubaloia

Kiroldegian

Urriak 15, igandea

■ 10:00 Kadete neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Aiala Zarautz

■ 11:30 Jubenil neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Aiala Zarautz

Pilota partidak

Usurbilgo frontoian

Urriak 11 asteazkena, 20:00

Eskuz Binaka Nagusiak

[Ohorezko maila](#)

Pagazpe / Eple.

Futbola Haranen

Urriak 14, larunbata

■ 10:00 Infantil mutilak:

Usurbil F.T.-Lengokoak B

■ 11:30 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Santo Tomas Lizeoa A

■ 16:00 Jubenil mutilak:

Usurbil F.T.-Dunboa Eguzki C.D.

Errebote txapelketa, finalaurrekoa

Ostegun honetan, urriaren 12an, Zubietan jokatu da finalaurrekoa, Zubietan eta Villabonako Behar Zanaren artean, 10:30ean hasita. Gogoan izan, eguraldi txarragatik irailaren 10ean bertan behera utzitako neurketa aurreko igandean, urriaren 8an jokatu zuen Zubietak Oiartzunen, etxekoan, Txost taldekoen aurka. Zubietarrek irabazi zuten. Azken emaitza; 5-13.



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.

Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Santuenea auzoan pisu berritua alokairuan. 2 logela. Sarrera abenduaren 1etik. Nomina, fidantza 2 hilabete. Prezioa: 580 euro. 667 438 145

3 logelako etxebizitza alokatzen dut Muna Lurra kalean. 943 36 53 58 / 661 43 63 53

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Gizaseme langile edo jubilatu batentzat (nahiago euskalduna). 687 348 223.

Kalezarren etxebizitza alokagai. 3 logela, garajea eta trastelekuarekin 673 547 332.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600

euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kanping karroa salgai. Wolfer tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeo karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar da, kartarekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrer altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila interna, esterna moduan,

haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Euskal filologoa, Mondragon Unibertsitateko masterrarekin eta oso kurrikulum zabalarekin eskaintzen da, euskarako klaseak emateko maila guztietan. Klase partikularrak bai akademiatan eta enpresetan. 638 917 714

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauzez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxateko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gazte eskaintzen da oportretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).



Zorionak Hegoa!
Urriaren 16an 3 urte!
Kantatu, dantzatu, salto egin, parre egin... eta ondo-ondo pasa eguna!



Zorionak Ane eta Noa!
Aita, Ama eta Julenen partetik. Asko maite zaituztegu!



Zorionak Dane!
Igandean 7 urte beteko dituzu. Primeran pasako dugu familia eta lagunekin ospatuz. Muxu asko guztion partez!!

Heriotzak

Carmen Villanueva Miguel
81 urterekin hil zen urriaren 5ean Usurbilen



Belen Cano Atalaya
85 urterekin hil zen urriaren 6an Usurbilen



OHARRA: 2017ko urriaren 20an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: urriaren 16an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Lan bila nabil. Orduka, gauetan...
Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketari lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketari lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketari egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatrari laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldari lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna

moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrari laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduakako lan baten

bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketari lanak, tabernak arraskan aritze-ko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketari lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketari, jabetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Pa-

perak egunean. Tel. 667 983 617.

BESTELAKOAK

Gitarra klaseak ematen dituen pertsona baten bila gaude. 657 795 378.

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiarra doan Usurbilgo autobus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an katurua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosi nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, tebibistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 12 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 13 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 15 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 18 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Urriak 12 - urriak 22

Osteguna 19 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 20 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 22 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urria

11 asteazkena

- "The Basques of Santazi" dokumentala
19:00etan Sutegiko auditorioan. Antolatzailea: Nafartarrak.

14 larunbata

- Eñaut Etxamendirekin solasaldia
11:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrera: doan. Antolatzailea: Nafartarrak.
- Harria Hitz, bisita gidatua. 11:00etan Dema plazatik.

15 igandea

- Atxorrotz gaztelura irteera 09:00, Usurbilgo Udaleko autobus geltokitik. Antolatzailea: Nafartarrak.
- Organo kontzertua. Giampaolo di Rosa 19:00etan Salbatore elizan. Sarrera: doan.

Sutegi udal liburutegia, larunbatetan ere zabalik

Sutegi udal liburutegia ohiko jardunean da guztiz. Jada larunbatetan ere zabalik dago 10:00-13:00 artean. Asteartean bezala. Astelehenetik ostiralera arratsaldez baita, 16:00-19:30 artean.

Irakurketa topaketa, hilaren 24an

Ana Jaka idazlearen 'Ez zen diruagatik' (Elkar) lana aztertuko dute, urriaren 25ean asteazkena 19:00etan Sutegi udal liburutegian, Pako Aristik bideratuko duen solasaldian. Idazlea bera ere ekitaldian izango da. Liburu honen aleak auzerrez eskura ditzakezue liburutegian.

Bezperan, urriaren 24ko Liburutegien



Urriaren 25ean, Ana Jaka idazlearen 'Ez zen diruagatik' (Elkar) lana aztertuko dute.

Egunean, Pello Añorga ipuin kontalari eta idazleak, 6 urtetik gorakoei zuzenduriko saioa eskainiko du.

Igande honetan, organo kontzertua

Giampaolo di Rosa kontzertista, inprobisatzailea eta konpositorea Usurbila dator. Igande honetan, urriaren 15ean, organo kontzertua eskainiko du Salbatore Elizan. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da kontzertua.

Usurbilgo Udalak, Parrokiak eta Foru Aldundiak antolatutako ekitaldirako sarrera doakoa izango da.



Giampaolo Di Rosa arituko da, arratsaldeko 19:00etan.

Datozenak

Urriaren 22an, Mundualdia eguna Usurbilen

Hiru urtez "Herri Anitza Eguna" gisa ospatu den egunak "Mundualdia" izenburua hartu du. Urriaren 22an ospatuko da Usurbilen. Aniztasunaren balioa aldarrikatu eta plazaratzeko asmoz, hainbat ekintza antolatu dituzte herritarrek eta Usurbilgo Udalak elkarlanean.

Egun osoko festa frontoian egingo da. Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta herritarrak.

Azaroan, 'Handia' filma Sutegin

Donostiako Zinemaldian bi sari jaso ditu 'Handiak' filmak. Urriaren 20an hasiko dira zine aretoetan eskaintzen. Usurbilen, azaro hasieran ikus ahal izango dugu. NOAUA!k antolatzen duen Kulturaldian, hain zuzen.



NOAUA! Kulturaldian ikus ahal izango dugu.

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

URDAINTZI

eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskaltel.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825



**ASEGURU ARTEKARITZA
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01 
pikabea@pikabeaaseguruak.com

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS



**Nafarroako 'piko de peralta'
piper ekologikoa**



**ZURE ESKAERA
EGIN!**



Piperra 4 eratan eska daiteke:

gordinik; 2.10€/kg
erreta; 2.6€/kg
erreta eta garbia; 3.90€/kg
hutsean poltsaratua; 4.30€/kg

Eskariak 2017/10/27 arte jasoko dira.

Alkartasuna Kooperatiban:
Atallu industrialdea 26, Usurbil
943 361 114 eta 630 938 027
alkartasuna@usurbil.com
www.alkartasuna.eus

FUN **Play** AREA

Famili osoarentzat

DOAKOA
-1 SOLAIRUA

**AISIA ETA
ESPERIENTZI
GUNEA!**

Kids zone

2tik 10 urtera

Umeentzako kluba non txikienek, bi urtetik aurrera, jolastuz ikasiko duten jarduera ludiko desberdinak burutuz.



HYPE Station®

7tik 99 urtera

PlayStation®- eko gadgets-ak eta azkeneko izenburudun joku eremua. Opariak, txapelketak, erronkak.



Ostiralak eta igandeak 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:30etara irekita.